

**ZENBAT BURU**  
Martin Dominguez

**ERREPORTAJEA**  
Adimen gutxikoak  
gaur egungo gizarte-  
tean

# BARREN

1999ko maiatzaren 14a  
VII. urtea - 278. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

**GEHIGARRIA**  
TxikiBARREN

**KIROLA**  
Morkaikok antolatu-  
tako Elgoibarko  
mendi itzulia

**KULTURA**  
Josu Mugicaren  
"Gogoaren hegalak"  
dantza saioa



## Adimen gutxikoak Ezberdinak baina berdinak

"Borondatearikin bide berriak urratzen dira" Marden

# freskura DOAN



Bezeroaren arreta telefonoa:  
902 246 902



**HYUNDAI**

Gida ezazu marka handi bat

**HILABETE HONETAN HYUNDAIK AIRE GIROTUA OPARITZEN DIZU\*.**

\*ACCENT, LANTRA, SONATA ETA COUPE MODELOTAN MAITZAREN AMAIERARA ARTEKO PROMOZIOA. SONATA MODELOAREKIN KLIMATIZAGAILUA DOAN.



SONATA



LANTRA



ACCENT



COUPE

MENDARO AUTOAK ( KONTZESIONARIO OFIZIALA) DONOSTIA · TEL. 943 31 22 00 · EIBAR · TEL. 943 70 13 82 · ELGOIBAR · 943 74 32 00  
AGENTE OFIZIALAK: ARRASATE TEL. 943 71 20 02 · TOLOSA · TEL. 943 67 40 29 · BEASAIN · TEL. 943 88 34 00 · LAISTER IREKIKO DUGU IRUNGO KONTZESIONARIOA



MARTIN DOMINGUEZ

## Osakidetza, hainbeste urte ordaindu eta gero, zer?

**H**au bai gauza ona. Tripako mina daukazunean, sendagilearengana joan eta "ezer ere" ordaindu gabe zer pasatzen zaizun eta zer hartu behar duzun esaten dizu. Haginetako minik baduzu, *Osakidetza*ko dentistarengana joan eta "ezer ere" ordaindu gabe, arazorik gabe, hagina atera eta listo. Baina ez, ez da hain erraza, dena ez dago hain ondo, eta batez ere, guztia ez da ordaindu gabe lortzen.

Urtebetean, ingresuen arabera, noski, enpresari baten eta bere langileen artean Gizarte Segurantzagatik eta istripuen kontrako aseguruengatik milioi bat baino gehiago ordain dezakete. Ez ote dugu beste tratu bat merezi? Ez al dugu nahikoa ordaintzen?

*Osakidetza* edozein zaindu behar du, nahiz eta lanik ez egin. EEBBetan, adibidez, ez dago horrelakorik eta norberak ordaintzen ditu bere gastuak. Noski, denek ez daukate behar adina diru eta batzuek kale bazter ilunetan hiltzen dira. Azken hau, *Osakidetza*ren lana zein den gogorazteko diot.

Sendagile batzuei asko kostatzen zaie analitika simple bat egitea. Ecocardiograma bat, erresonantzia bat... egitea garestia omen da. Eskerrak, beste sendagile batzuek diruari baino lehenago pertsonari begiratzen dioten.

Norbaitek sendagile berezi baten zerbitzuen beharra badu, gutxienez hilabete egon behar du itxoitzen. Epe hori pasa, eta berriz joatean ia ahaztu egiten zaizu sendagilearengana zergatik zoazen, jadanik mina pasa zaizulako. Beste batzuetan, ordea, txanda tokatzen denerako, beranduegi da.

Azpimarratu nahi nuke, kasu guztiak ez direla berdinak eta beti ez dela gauza bera gertatzen.

Ospitaletik pasa behar izan dugunok, ez dugu ikusi sendagileek, erizainek... ikusten dutena. Guk aita, ama edo laguna ikusi dugu ohe baten laguntza edo arreta eske eta beraiek, berriz, izen bat ikusten dute, ohe bat betetzen, zikintzen, eta hori beraientzat jasangaitza da.

Inork ez du gustuko ospitalean egotea, lehenbailen irtetea nahi izaten dugu, baina ez gara gu irten ahal izateko ondo gaudela esan dezakegunak, horretarako daude sendagileak.


Bai, sendagileak, bata zuriekin gora eta behera ibiltzen direnak, zure gelatik noiz pasatuko diren ez dakizun horiek. Sendagile batzuk ohea noiz libratuko den kezka handiagoa daukate, gaixoa noiz sendatuko den baino. Gogorra da, ezta? ba hori da nire iritzia, nire aitaren ondoan, ospitalean, hiru aste eman ostean. 40 urte lanean eman eta gero, zure osasunari baino gehiago begiratzen diote, *Osakidetza*rentzat egun baten ohe batek zenbateko kostua duenari. Dirudienek, ospitalean egun bat igarotzeak sortzen dituen gastuak 25.000 pezetakoak dira. Hau esan zigun behintzat sendagileak astebete bertan egon eta gero.

Gainera, hobekuntzarik ez egon arren etxera joateko moduan zaudela entzun behar izaten duzu.

Begira, nahigabe izenburuari erantzuna aurkitu diot. *Osakidetza*, hainbeste urte ordaindu eta gero, zer? ostikada bat ipurdian eta sueroa, sonda... hartu eta etxera. Listo, ohe bat libre, hurrengo!

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzeko dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzeko du.

Barrak, Birrak eta Barreak



©KOKOE 99 56



Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12

Publizitatea:

☎ 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.jalgi.com

#### ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

#### LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

KAZETARIAK Irati Agirreazaldegi, Asier Orbea

#### PUBLIZITATEA

Maitane Cid

#### MAKETATZAILEA

Bea Ansoa

#### ADMINISTRATIOA

Amaia Martin

#### GERENTZIA

Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

#### KOLABORATZAILEAK

Ainhoa Andonegi,

Aitor Argarate, Idoia Arozena,

Aitzol Arriola, Martin Dominguez,

Jon Eugi, Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea,

Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba,

Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguen,

Iban Urizar, Amaia Urzelai,

Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.

#### BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

#### INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E.

#### TIRADA

4.000 ale


#### LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

#### ISSN

1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko  
Jaurlearitzako Kultura  
Sailak eta Foru  
Aldundiak diruz  
lagundutako  
aldizkaria.*



## Aurreko asteko eskutitzari erantzuna

Honen bidez, I.L. inicial soilen bidez aurkeztutako pertsona batek BARRENen hainbat instalazio publikotan (Kultur Etxea, Udaletxea, Udal Liburutegia) dagoen igogailu gabeziari buruz botatako kritikei erantzun nahi nieke. Bide batez, lerro hauetaz baliatzen naiz, BARRENeko erantzuleei, beste komunikabideetan egiten duten bezala, erreklamazioak eta ke-xak aurkezten dituzten pertsonak izenen eta abizenen bidez identifika ditzatela eskatzeko: honek interesatuei zuzenean erantzuteko bidea errazten du eta zentzutasunaren eta erantzukizunaren akuilu da.

I.L.k salatzen duen igogailu gabeziari dagokionean, aitortu egin behar dut gai honi buruz hausnartzeko aukera izan dudala, istripu baten ondorioz Udaletxeko eskilarak makuluez lagundurik (egunean lau aldiz) igo behar izan ditudan aste luzeetan zehar. Hau dela-eta, gai honi buruz nire elkarrizketakide (orain arte) ezezagunak baino ezagupide handiagoa dudala uste dut.

Hau horrela izanik, uste dut igogailuak jartzeak eraikuntza hauen egoera hobetuko lukeela, baita edonori burura dakizkiokeen beste hainbat jarduera eta zerbitzu ere. Zoritzarrez jarduera onuragarri hauek, beti ere, diruaren menpe (I.L.ri harrigarria irudituko zaion arren, ez daukagu bururaten zaigun guztia berehala egiteko adina diru) eta kasu bakoitzari dagokion egoeraren menpe daude. Gogora dezagun, Udaletxeak hainbat mende dituela, eta, garai hartan igogailuak ez zirela arkitektoen hausnarketan baitan agertzen. Halaber, badaude Liburutegian igogailua jartzea zailtzen duten

hainbat baldintza: orain dela 23 urte egindako etxea da, eta Zaharren Egoitzarako izendatutako bi solairuetarako ez zen igogailurik jarri, baina Liburutegiari zegokion 2. solairuan jarri ziren igogailuarentzat motorrak. Beraz, Liburutegira joateko igogailua jarri nahiko bagenu, motorrak 1. solairuko etxebizitzan edo garajeetan jarri beharko genituzke, eta hori ezinezkoa da; aspaldi egindako eraikuntzen akatsak dira. Dena dela, eskerrak eman nahi dizkiot I.L.ri bere interesarengatik, baina, aldi berean, argi utzi behar dut alkatearen zereginetariko bat dela lehentasunak ezartzea, eta, beharrik premiazoenei, ekonomikoki bideragarriak direnei, ekitea.

**Gillermo Garate Urzelai**  
Elgoibarko alkate-lehendakaria

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zenbakia**.

## GALDERAK

◆ Gazte batzuek honako galdera hau luzatu digute: **“Herri Eskolako jolaslekura zergaitik ezin daiteke arratsaldeko 20:30etik aurrera sartu?** Uda sasoiari gaude eta beranduago iluntzen duenez, futbolearen edo saskibaloian jokatzeko denbora gehiagoz zabalik egotea nahi genuke. Pertsona nagusi askok pasealeku modura ere erabiltzen du jolaslekua”.


Erantzun bila Herri Eskolara deitu dugu eta honela erantzun digute. **“Eskola orduetatik kanpo Herri Eskolako ikasleek bertako insta-**

**lazioak erabiltzeko duten lehentasuna babestu nahi genuen. Gainera, azken bi urte hauetan lapurketa bat eta apurketa dexente izan direnez, kontrol neurri batzuk hartzea erabaki genuen. Eskola orduetatik kanpo jolaslekuak erabiltzeko ordutegi bat finkatu dugu. **Astegunetan, arratsaldeko 18:30etatik 20:30ak arte sartu daiteke Herri Eskolan eta ordutegi horretatik kanpo sartu nahi izanez gero atezainari baimena eskatzeko aukera dago”.****

## TXALOAK

◆ Herritar batek **Parrokiako Misio Taldekoak txalotu nahi ditu antolatutako erakusketarengatik. “Oso erakusketa polita eta aberasgarria jarri dute. Pedagogikoki oso ondo enfokatu dute eta haur eta gazteek gauza asko ikasteko aukera daukate. Izan ere, beste herrialdeetako egoera ezagutzeko aukera ematen du erakusketa berezi honek”.**

# BAI, ESAN?



**Agustin Arostegi**  
Gestio Eskolako irakaslea

Joan den astelehenean, hilak 10, *telebistarik gabeko eguna* izendatu zuten Ikusentzuleen Elkartearen Federazio Iberikoak eta beste zenbait erakundek, gehiegizko publizitatearen aurkako protesta egiteko. Publizitateari buruz hitz egiteko, marketing kontuetan aditua den **Gestio Eskolako Agustin Arostegirengana** jo dugu.

**- Astelehenean telebistarik gabeko eguna izendatu zuten gehiegizko publizitatearen aurka protestatzeko. Zer irizten diozu horri?**

- Publizitateak, telebistaz gain, beste zenbait euskarri erabiltzen ditu. Arazoa, beraz, ez da euskarria, baizik eta mundura bota nahi dugun mezua. Publizitatearen mitoak, gizakiaren borondatea nolabait bortxatzen duela esatea, gehiegizkoa iruditzen zait.

**- Publizitate gehiegi, txarra eta bolumen altuan emititzen dela diote kontsumitzaileek. Horrela al da hori?**

- Gehiegi, zalantzarik gabe. Bolumen altua, askotan baita ere (publizitatea datorrenean zapping egin beharrean, bolumena jaistera behartzen gaituztela diote adituek). Txarra den ala ez, iragarleak dituen helburuen arabera juzgatu behar genuke. Sormenari buruz ari bagara, espainiar publizistak munduan famatuak omen dira.

**- Legediak nola arautzen du telebistako publizitatea?**

- Oro har, 1988eko *Ley General de Publicidad* da Espainian publizitatea mugatzen duena. Telebistan emititzerakoan beste arau batzuk ere bete behar dira. Adibidez, egunean ezin da minutu kopuru zehatz bat gainditu. Telebista kateek egunean 24 ordu emititzen dute, jakina, gauze oso publizitate gutxirekin, horrela ez dute kopuru hori gainditzen eta ordu normaletan gertatzen dira salatutako gehiegikeriak.

**- Kanpaina publizitatearen onerako ala txarrerako izango da?**


- Ez dut uste protestak oihartzunik izan zuenik. Ez da ahaztu behar telebista kateen diru sarrera bakarra publizitatea dela (Telebista digitala eta Canal + salbu). Ez dira gauzak asko aldatuko.

**- Publizitate ezkutua ere gora egin du, nola kontrolatzen dute hau publizitate arduradunek?**

- Ez dut atsegin publizitate ezkutua. Hori ikuslearen borondatearen aurka sartzen duten publizitatea da. Beste kasuetan, ez badugu ikusi nahi zapping-a egiteko aukera daukagu. Honetan, ordea, aria galdu nahi ez badugu., publizitatea irentsi behar da.

## ESKERTZA

1999ko maiatzaren 2an, 70 urte zituela hil zen  
**PILAR ZULAIKA URRUTIA**ren sendiak,  
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola  
hileta elizkizunetara agertu izana.



# ADIMEN GUTXIKOAK

**Atzegi, Gipuzkoako adimen urrikoen eta hauen senideen elkar-teak, urtero egiten duen legez, pasa den apirilean jarri zuen kanpaina berria mar-txan. Aurtengo kanpainaren lema, "Ez dakizu zer sentitzen du-dan. Lastimal sentitzen du!" da. Kan-paina hauen bidez, gizarteak kontzien-tziatu nahi dute *Atzegi*Rock. Gizarteak adimen urrikoen arazoak baloratzea eta onartzea, alegia. Beste helburu na-gusia, adimen gutxikoek eta hauen fa-milien bizi kalitatea hobetzea da. El-goibarko adimen gutxiko pertsonen-gana jo dugu eta beraien eguneroko bizimoduaren berri jakin nahi izan du-gu: lana, aisialdia, etxebizitza... eta gi-zarteratzerakoan dituzten arazo nagu-sien inguruan hitzegin dugu. Atera du-gun ondorio nagusia, azken urteetan adimen urrikoen egoera arlo askotan hobetu dela izan da. Gizarteak ulertu eta onartu egiten ditu, baina, hala ere, bide luzea gelditzen da aurretik.**

**G**ureak S.A. taldeko enpresak adimen gutxiko pertsonentzako lana ematen duten tailer ba-bestuak dira. Elbarri fisikoentzako eta adimen urriko pertsonentzako 15 lantegi daude Gipuzkoan, eta guz-tira, 2.225 langilek egiten dute lan. Cany Peñalba Atzegiko arduradu-nak esan digunez, "Gizarteratzea osoa izan dadin ezinbestekoa da lan munduan sartzea eta *Gureak* taldeko enpresen produktzioa, Gipuzkoako sare industrialean guztiz integratua dago".

## 18 ELGOIBARTAR LANEAN

Elgoibarko adimen gutxikoek,

*Gureak* taldeak orain dela 8 urte Ei-barren sortu zuen lantegian egiten dute lan. Guztira 107 langile eta 7 arduradun daude. Bertara joatea erabaki genuen eta 18 elgoibarta-rrekin egin genuen topo. Hamaike-takoaren orduan harrapatu genuen eta asko poztu ziren gure bisita-rekin. Harrotasunez erakutsi ziguten bakoitzak egiten duen lana. El-goibartar hauek, automobilentzako kableak eta montaje elektronikoak egiten dituzte. Arazo psikikoak dituzten pertsonak egiten dute lan *Gureak*-en, besteak beste, depresio arazoak, Down Sindromea edo Epi-lepsia arazoak dituzten langileak daude. Bakoitzaren lanerako gaita-sunak ez dira berdinak, horregatik, langilearen ezaugarrietan oinarrituz, langile bakoitza prozesuaren atal batez arduratzen da. Down sin-dromea dutenek esaterako, katean egiten dute lan. Medikuek arazo psikikoak graduen arabera sailka-tzen dituzte. Irizpide horri jarraituz, langileak kategorietan banatuta daude, baita kontratuak ere. Batzuek nominan daude eta beste batzuek okupazional gisa.

## HARREMAN ONAK LANEAN

Maite Otaegik 48 urte ditu eta duela 5 urtetik egiten du lan *Gureak*-en, "Depresio arazoak izaten nituen eta medikuak niretzako egokiena lan hau zela esan zidan. Nire ahizpa Mari Karmenek ere, Eibarko lantegia sortu zutenetik egiten du lan *Gureak*-en. Ahizpak, lehenago ere *Gureak* taldeko beste lantegi batean 12 urte egin zituen. Duela hilabete batzuk *Gureak* taldeko lantegietan 20 urte lanean pasa dituztenek omenaldia jaso zuten Donostiako Anoeta Belodromoan, eta Mari Karmen ere omenduen artean izan zen". Maite Otaegik esan digunez, kableen puntak gastatzea da bere lana, "prentsa erabiliz kableari puntak gastatzen dizkiot. Baina bakoitzak bere arazo-



# GAUR EGUNGO GIZARTEAN



aren arabera lan bat edo beste egiten dugu". Maiteren hitzetan, langileen arteko harremana oso ona da, "norbaitek arazoren bat badu albo-koak beti gaude laguntzeko eta animatzeko prest, hemen denok baikara berdinak. Norbaitek lana egiteko gogo gehiegi erakusten ez badu, beti dago lanean jarraitu behar duela esateaz arduratuko den norbait". Maitek aipatu digunez, "hasieran gauzak zailagoak ziren. Ez genuen lantegi serio baten itxurarik ematen, askok jolas bat moduan hartzen zuten eta lantegian ibiltzen ziren. Denbora pasatu ahala, egoera hobetuz joan da eta gehiago zentratu gara gure eginbeharretan".

lñaki Kortak Gureak taldean egiten du lan eta Atzegiko kidea da. Berarekin eta bere ama Nievesekin hitz egin dugu. Nievesek aipatu digunez, "lantegi babestu hauen sorrera, adimen urriko pertsonentzako aurrerapausu itzela izan da. Gizarteratzea lortzeko faktore oso garrantzitsua da lanbide bat izatea. Gauza berri asko ikasten eta euren antzerako arazoak dituzten pertsonak ezagutzen dituzte. Etxetik irtezen ere lagatzen ez dieten gurasoekin biziz gero, ez dute pertsona moduan aurrerapenik egiten eta ez dute ezer ikasten. Izan ere, gauzak ikasteko geldoagoak izan arren, azkenerako ikasten dituzte. Pazientzia handia behar da, baina borondatearekin gauza asko lor daitezke. Orain arte egiten zen hutsegiterik nabarmenena adimen urriko pertsonak ikastetxeetatik, lan mundutik, kiroletatik etab. aldentzea zen. Ezjakintasunaren ondorioz, gizartetik bazterten ziren. Gaur egun ordea, edozein delarik arazo psikikoa, guztiak dute lanean hasteko aukera". Nievesek esan digunez lñakiri ez zaio gehiegi gustatzen lanera joatea, "nahiko alperra da eta asko kostatzen zaio lanera joatea, baina 8 orduak fin-fin betetzen ditu".

## EGOERA ASKO ALDATU DA

1960an familia multzo batek sortu zuen Atzegi. Atzegiko bazkideek kuotak ordaintzen dituzte eta honetaz gain, Foru Aldundiko eta Udaletako dirulaguntzak jasotzen dituzte. Ia 40 urte hauetan, hainbat zerbitzu sortu eta bultzatu ditu. Adimen urriko pertsonentzat zuzeneko zerbitzuak eskaintzen ditu etxebizitzetan, aisialdian eta gizarte partaidetzan, ikastetxeetan, lantegi babestuetan, egoitzetan... Gurasoak hiltzen badira, etorkizuna aurrez prestatzeko aholkularitza zerbitzuak ere eskaintzen dituzte edo Txolarte taldearekin elkarlanean kirolak, oporrak eta aisialdia bultzatzeko jarduerak. Atzegiren helburu nagusia, adimen urritasuna duten pertsonen sentimenduak, afektuak, haserreak eta eskakizunak beste guztionak bezalakoak direla jakinaraztea da. Nievesen eta Atzegiko arduradunen hitzetan, "gizarteak ere dagoen moduan baloratu beharko litzuzke pertsona hauen ahaleginak. Gizartean leku bat daukate eta jendea horretaz kontzientziatu behar da. Jendeak begi onez begiratu beharko litzuzke. Alor askotan adimen gutxikoen egoera asko aldatu da, baina oraindik ere badaude aldatu beharreko zenbait gauza. Herri barruan egiten diren ekintzak eta jaiek antolatzerakoan, adibidez, berrietan gehiago pentsatu beharko litzateke. Hortan saiatzen dira Atzegikoak euren kanpainenkin. Gizarteak adimen urriko pertsonak onartzeko eta ulertzeko, ezagutzea da modurik onena, Atzegiren kanpaina batek zioen bezala, ezagutzea maitatzea baita. Gainera ematen zaien maitasuna baino gehiago bueltatzen dute, hortan oso bereziak dira. Pertsona zintzoak antzemateko seigarren zentzu bat ere dute".

ALKOHOLEMIA TASA BERRIA 0,5EKOA DA

# Zer iruditzen zaizu alkoholemia tasa jaistera?



**VIRGINIA BARRIADA**  
28 urte, etxekoandrea

Ongi iruditzen zait. Asteburuetan ateratzen naizenean zerbait hartzea gustatzen zait, baina behar baino gehiago edanez gero taxian itzultzen naiz etxera.



**JOSE JABIER ERRASTI**  
39 urte, irakaslea

Istripuak ekiditeko egin badute, ondo iruditzen zait. Baina hori ez da neurri bakarra, errepideetako puntu beltzak ere konpondu beharko lituzkete.



**ANA PERURENA**  
35 urte, etxekoandrea

Ongi dagoela iruditzen zait. Afariren bat izanez gero gehiago zaindu beharra dago orain. Kotxia hartzen dabanak kontrolatzia da kontua. Erresponsabilia izatia.



**NEREA JUARISTI**  
36 urte, irakaslea

Ez zait gaizki iruditzen. Orain bi garagardo edanda positibo ematen du, beraz, norberak kontrolatu behar du bere burua. Beste irtenbide bat egokiagoa litzateke.



**MIKEL ALBERDI**  
31 urte, laminadorea

Oso gaizki. Lehen ondo afalduz gero, piska bat edanda libratu zintezkeen. Tasa jaitsi dutenetik, norbere burua kontrolatuta ere, gutxi edanda positibo eman daiteke.



**JOSE ANTONIO GARCIA**  
31 urte, kalibradorea

Gaizki egin dutela iruditzen zait. Lagunekin ateratzen zarenean beti hartzen dituzu pare bat zerbeza eta tasa 0'5era jaitsi dutenetik, horrekin positibo ematen du.

**Miopia**

**Excimer laser**

**Lasik**

**Jose Ignacio Recalde Yurrita**

Mediku Oftalmologoa

Laserrarekin interbentzioak BILBON

Urtzaile kalea 2, 1 · EIBAR Tel.943 20 18 44

- ⊗ IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- ⊗ ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!

*Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin.  
Zatoz informazio eske!*

**LARRAÑAGA**  
A U T O E S K O L A  
Tel: 943 74 10 11



# ISPILUARI DEGIRA



**SORAIÁ URBIETA**

**AGURTZANE ileapaindegikoa**

- **Gizon ala emakume gehiago atenditzen dituzu?**
  - Emakumeak, alde handiarekin gainera.
- **Pelukeroak kotilak al zarete?**
  - Ez. Nik uste, fama kontua baino ez dela.
- **Jendea pelukeriara kotiletzera joaten dela uste al duzu?**
  - Ez. Bueno, batzuk dotore jartzen ditugun bitartean aldizkariaren bat irakurtzen dute.
- **Pelukeroa eskultorea al da?**
  - Bai. Piska bat badela uste dut.
- **“Ruper” ala “Llongueras” nahiago?**
  - Ez bata, ezta bestea ere.
- **Noiz kexatu zaizu bezero bat azkeneko?**
  - Ez da kexarik egoten normalean.
- **Nori gustatuko litzaizuke ilea moztea?**
  - Bittor Alkizari.
- **Gizarte honetako zer ebakiko zenuke zerora?**
  - Hipokresia.
- **Zer da jendeak gehien eskatzen dizuena?**
  - Gazteen artean koloreak daude modan. Bestela, flekilo motza asko erabiltzen da. Moda orientala indarrean dago.
- **Guraizeekin instintu hiltzailerik sentitu al duzu?**
  - Ez pentsa, ... behin edo behin bai.
- **Zerk jartzen dizkizu ileak tente?**
  - Ez dakit. Hainbeste gauzak jartzen dizkit, ezin dudala ezer konkreturik esan orain.
- **Guraiza batzuekin miraririk egin al liteke?**
  - Bai, egin daitezke. Orain egingo dut bat akaso.
- **Zer gomendatzen duzu ilea sano mantentzeko?**
  - Maskarila bat, noizbehinka puntak moztea eta udaberrian eta udazkenean ilea ez erortzeko lozio on bat erabiltzea.
- **Gure bizi-erritmoa txarra al da ilearentzat?**
  - Nahiko txarra da. Gero eta estres gehiagorekin gabiltza. Kutsadura ere oso kaltegarria da.
- **Zenbat ordaindu behar zaizue sesio baten ostean?**
  - Oso erlatiboa da. Bezero bakoitzaren arabera eta eskaintzen zaion zerbitzuaren arabera ezberdina da.

Arnaitz Gorriti

**Lan  
eskaintza**

Elgoibarren HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA suspertzeko

## DINAMIZATZAILE BAT BEHAR DA

### ESKATZEN DA:

- ✓ Euskara maila ona
- ✓ Harremanetarako dohaina
- ✓ Antolakuntzarako eta gestiorako gaitasuna
- ✓ Adina: 25-45 urte bitartean

### BALORATUKO DA:

- ✓ Elgoibartarra izatea
- ✓ Esperientzia sektorean edo euskalgintzan
- ✓ Curriculumak

### ESKAITZEN DA:

- ✓ Egun osoko kontratua urtebeterako (luzatzeko aukerarekin)

*Curriculumak jasotzeko azken eguna:*  
maiatzaren 21a

Elgoibarko Izarra · Ubitarte, 4 · 20870 Elgoibar

*Informazioa:* 943 74 16 26 (Imanol)

PROIEKTUAREN ERAGILEAK



BABESLEA



● **BARREN****Interneten ikusgai**

Joan den ostiraletik, hilak 7, Internet bidez, nahi duen guztiak BARREN ordenagailuko pantailan ikusi ahal izango du papelean duen itxura berarekin. Horretarako, <http://www.ihardun.com/barren> helbidera egin beharko du konexioa. Atzerrian bizi diren Elgoibarko seme-alabek, bidaia luzeak egiten dituztenek edo besterik gabe, Elgoibarko berriak jakin nahi dituztenek ostiral eguerdirako helbide horretan izango dute BARREN. Internetera konektatzeko hiru gauza baino ez dira behar: konputagailua, modema, eta telefono linea. Hona hemen beste aukera bat etxeko buzoira jo gabe ostiral eguerdiro BARREN irakurtzeko.

● **14 lagun aurkeztu dira udaltzain postuetarako deialdira**

Udaltzain postuak betetzeko egindako deialdian 14 lagunek eman dute izena, lau gizonezkoak eta hamar emakumeak, hain zuzen ere. Hala ere, Udaltetik adierazi dutenez, baliteke frogak udako oporren ostean egitea. Hauteskundeak berehala izatea eta egungo korporazioaren behinbehinekotasuna dira atzerape-naren arrazoiak. Izan ere, frogak epaitzeko zinegotziak egon behar dira. Aurkeztu direnetatik 5 elgoibartarrak dira eta gainontzekoak Euskal Herriko bestezenbait tokitakoak, besteak beste, Donostiakoak, Zarauzkoak eta Bilbokoak.

**Euskal Herrian Euskaraz sortu da Elgoibarren**

Euskarari ikuspegi nazionala emateko eratu dute taldea

**E**uskal Herrian hizkuntzarekin dauden arazoak ezagutzera emateko, *Euskal Herrian Euskaraz* taldea sortu da Elgoibarren. “Euskararen arazoari ikuspegi nazionala eman nahi diogu. Elgoibartarrei aditzera eman, hemen ezezik Euskal Herri osoan euskaraz arazoak dituela, besteak beste, irakaskuntzan eta justizian”, adierazi digu Sabin Arakistain *Euskal Herrian Euskaraz*en talde eragileko partaideak. Astero biltzen den talde txiki bat osatu dute eta ekintza puntaletarako laguntza emango dien beste jende multzo batekin ere bilerak egiten dituzte. “*Euskal Herrian Euskaraz*en dinamikan parte hartzen dugu, bakoitzak ahal dugun neurrian, eta taldean lan egiteko jende orok ateak zabalik dauzka”. Epe laburrera, irakaskuntza eta justizia arloetan lan egiteko asmoa daukate. Elgoibarren, lehen hezkuntzan bermatuta dago euskarazko irakaskuntza, ez ordea, irakaskuntza ertainean. “Gure ustez D ereduak da ikasle bat eskolan hasten denetik unibertsitateira heldu bitartean jarraitu behar duena eta gaur egun ezinezkoa da, euskara ofiziala ez delako”. Maizta aprobetxatu nahi dute ekintza bereziak egiteko, matrikulazio kanpaina orain hasiko baita. ‘Euskal irakaskuntzari mugarik



*Taldearen berri jakin nahi duenak bertako kideengana jo dezake.*

ez' lemapean zenbait ekimen antolatuko dituzte. Hilaren 22an eta 29an informazio guneak jarriko dituzte herrian, jendea euskararen arazoaren inguruan kontzientziatzeko. “Justiziaren gaiari ere orain heldu nahi diogu, abokatu euskaldunei eta *Euskal Herrian Euskaraz*eko kideei isunak eta kartzela zigorrak jarri dizkietelako. Ez daukagu euskaraz epaituak izateko esku-biderik eta hori legearen aurkakoa da”. Elgoibartarrok arlo hauetan ezezik euskararen inguruan lan ugari egin dezakegula adierazi dute taldekoek. Besteak beste, osasun arloan, enpresa pribatuetan, administrazioan... “*Euskal Herrian Euskaraz*en helburua da, elgoibartarrei ohartaraztea euskararen arazoa ez dela Elgoibarrera bakarrik mugatzen”.

**Gero eta euskaldun gehiago dago Elgoibarren**

Erdaldunen portzentaiak behera egin du nabarmen

**E**uskal Autonomia Erkidegoko herritarren hizkuntza gaitasuna neurtu berri du *Eustatek*, 1996. urteko erroldan jasotako informazioa oinarri hartuta. Bi urtetik gorako biztanleen azterketa egin ostean udalerriz udalerrira eman dituzte datuak. Elgoibarren, 1991ko eta 1996ko datuen arteko konparaketa eginez gero, erdaldunen kopuruak behera egin duela ikus genezake. Euskaldunen eta euskaldun berrien

portzentajeak, aldiz, nabarmen egin du gora. 1991. urtetik hona, euskaldunen kopuruak nabarmen egin du gora Elgoibarren ezezik Euskal Herri osoan. Azterketa soziolinguistikoaren arabera, gorakada, batez ere, gazteen artean izan da. 5 eta 14 urte bitarteko gaztetxoak dira euskaldunenak, eta horren arrazoi nagusia heziketa sistema izan dela adierazi dute adituek.

	EUSKALDUNAK		EUSKALDUN BERRIAK		ERDALDUNAK	
	1991	1996	1991	1996	1991	1996
ELGOIBAR	%56,5	%59,2	%10,0	%12,9	%33,5	%27,9



### "Sar zaitetz mentura zoragarri honetan" erakusketa Kultur Etxean

Joan den asteartean, hilak 11, inauguratu zuten Elgoibarko Parrokiako Misio Taldeak antolatutako "Sar zaitetz mentura zoragarri honetan" erakusketa. Bertan, Elizbarrutietako Misioak Taldeak Rwandan, Angolan eta Ekuadorren egiten dituen jardueren berri eman dute, herri hauen errealitatea eta kristau komunitateen lekukotasuna azalduz. Erakusketan tresnak erabiltzeko, janaria prestatzeko, jantziak probatzeko, jolasteko... egiteko aukera egon da. Horrela, Afrika eta Hegoamerikako behartsuen errealitatea erakutsi nahi izan dute. Goizetan Lehen Hezkuntzako ikasleek bisitaldi gidatuak egin dituzte. Erakusketa ikusteko azken eguna gaurkoa da, arratsaldeko 20:00etan itxiko baititu ateak.

### Patxi Bisquertek "Patesnak" laburmetraja aurkeztu zuen Ongarriren zine emanaldian

Joan zen ostegunean, hilak 6, gonbidatu berezia izan zen Ongarriren zine saioan, Patxi Bisquert aktorea hain zuzen ere. Berak, Iñaki Elizalde zinegile nafarraren Patesnak laburmetraja aurkeztu zuen. Herriko Antzokira hurbildu zirenek grabazioan bizi izandako gorabeherak entzuteko parada izan zuten. Patesnak laburmetrajeak bi haurrek gerra garaian bizitako une latzak kontatzen ditu. Hasiera baten Elizalde bera zen aurkezpena egitekoa, baina Unicefekin kolaboratzaile lanak egitera Albaniara joana denez, ezin izan zuen etortzerik izan. Laburmetrajearen ostean, Cube, zientzia fikziozko filme kanadiarra izan zen ikusgai.



### EH alderdiak Asier Zengotita gaztea aurkeztu du alkatetzarako

Asier Zengotita gazte elgoibartarra da Euskal Herritarrok taldeak ekainaren 13ko hauteskundeetara aurkeztu duen zerrendaburua. Pentsaurrekoan azaldu zutenenez, gaur egungo prozesu politikoan oinarrituz euskal demokrazia eraiki nahi dute. EH alderdiak kandidatura berezia aurkeztu nahi izan du aurtengo hauteskundeetarako eta horregatik euskaltzaleak, kulturgileak, enpresariak... osatzen dute zerrenda. Asier Zengotita alkategaiatz gain, zerrendako beste hautagai batzuk agertzen dira argazkian.



### Marta Carrascok Camile Claudel omendu zuen Herriko Antzokiko eszenatokian

Haritz Dantzari Taldeak eta Musika eta Dantza Fundazioak, maizta, dantzaren munduari eskaini diote. Zerbait ekitaldi antolatu dituzte eta lehena Marta Carrasco dantzari kataluiniarraren *Blanc d'ombra* ikuskizuna izan zen. Joan den ostiralean Herriko Antzokian eskaini zuen saioarekin Camile Claudeli omenaldia eskaini zion. Bere gorputza, keinuak, argia...



### ● "Oporraldiak bakean" kanpaina martxan jarri du Udalak

"Oporraldiak bakean" kanpaina jarri du martxan Udalak 99ko udarako. Kanpaina honen helburua uztailaren 6tik irailaren 6ra arte Saharako haurrak etxe partikularretan hartzea da. Haurrak hartzeko jartzen den baldintza bakarra epe horretan Estatu Espainiarretik ez ateratzea da. Kanpainen parte hartu nahi duten familietako kideek Elgoibarko Udaleko Ongizate Sailera jo dezakete (943 74 10 08) eta bertan jaso ahal izango dute informazio gehiago.



## J. OVIDIO CAMPEYO TEJIDO

PSE-EE



- ADINA:** 48 urte
- JAIO TERRIA:** Lugo
- IKASKETAK:** Zuzenbidea (3. mailara arte)
- LANBIDEA:** Gerentea
- EGOERA ZIBILA:** Ezkondua
- ZALETASUN BAT:** Sukaldaritza
- LIBURU BAT:** "La Soledad del Manager"
- KIROL BAT:** Futbola
- JANARI BAT:** Antxoak eta bildotsa

- ◆ **Elgoibarren zer dago faltan? eta zer sobran?**  
- Espazio industrialia falta zaio eta baita Deba ibaiaren garbitasuna, orain dela urte asko bainatzen ginen bezala bainatzeko. Sobran ez dut uste ezer daukanik.
- ◆ **Elgoibarko zein txoko erakutsiko zenioke kanpotar bati? eta zein izkutatuko?**  
- IMH. Elgoibar herri industrialia da eta bertan jasotzen du prestakuntza, industriaren geroa izango denak.
- ◆ **Defini ezazu zure burua bi hitzetan.**  
- Nahiago dut besteek defini nazaten.
- ◆ **Zein da azken aldian entzun duzun berririk onena?**  
- Batetik, langabeziaren jaitsiera eta bestetik biolentzia gelditzea.
- ◆ **Aukera emango balizute zer aldatuko zenuke zure bizitzan?**  
- Ez dut uste hori egitea posible denik, beraz, ez diot nere buruari sekula horrelako galderarik planteatu.
- ◆ **Zein egunkari irakurtzen duzu?** - Harrapatzen dudana guztia. Batez ere, Diario Vasco eta egunkari ekonomikoak.
- ◆ **Norekin emango zenituzke pare bat ordu hizketan?**  
- Jende nagusiarekin, beraien iritziak eta gomendioak oso baliagarriak baitira. Baita gazteekin ere, beraiek dira geroa eta entzun egin behar zaie.
- ◆ **Zein da gehien baloratzen duzun eskubidea?** - Askatasuna.
- ◆ **Erretzailea al zara?**  
- Bai, pare bat puro erretzen ditut egunean.
- ◆ **Praktikatzen al duzu kirolik? zein?**  
- Bai, ez daukat denbora askorik, baina palan jokatzen dut eta udaran igeriketa egiten dut.
- ◆ **Erabiltzen al duzu telefono mugikorrik?**  
- Batzutan lana dela-eta erabili beharra izaten dut, baina ahalik eta gutxien erabiltzen saiatzen naiz.
- ◆ **Etxeko lanik egiten al duzu? zein?** - Ez nik nahi nukeen beste. Sukaldean aritzea gustatzen zait eta batez ere, janaria prestatzen laguntzen dut.
- ◆ **Emaiguzu arrazoi bat ekainaren 13an zuri botoa emateko.**  
- Ez dut uste arrazoi bakarra dagoenik. Botua aurkeztutako programaren arabera eskatu behar da, baita norberaren ibilbidea ikusita ere.

## Legealdirako programa

*Programa egiteko jende askoren iritzia eta partehartzea jasotzen saiatu gara eta laburbilduz, puntu hauek azpimarratu nahi genituzke:*

- Lanaren arazoari lehentasuna eman nahi diogu.
- Desberdintasunen aurka borroka egin nahi dugu. Batez ere, gizonen eta emakumeen arteko diferentzien aurka, baina baita gazteen eta arrazen arteko ezberdintasunen kontra ere.
- Elgoibarko auzoetan dauden arazoak konpontzeko

bideak bilatu behar dira, albo batera utzita baitaude. Urasandin, esaterako, izugarriko trafikoa daude, ia ezinezkoa da errepide generalera ateratzea, eta horri irtenbideren bat eman beharko litzaioke.

- Enpresentzako espazio gehiago sortu beharko lirateke. Badira Elgoibarko zenbait lantegi leku faltagatik Itziarrera joan behar izan direnak, eta hori penagarria da.
- Elgoibartarron artean elkartasun idea bultzatu beharko litzateke.

# *Txiki* BARREN

LHko eta DBHko IKASLEEKIN EGINDAKO 53. GEHIGARRIA



# M

endaroko San Jose Ikastolako gaztetxook aurten Ituren eta Zubietako inauterietan parte hartzeko aukera izan dugu. Bertan mota askotako mozarroak zeuden. Batzuk nazkagarriak, animalien hesteekin eta barrunbeekin jendeari segika ibiltzen zirenak. Beste batek karroza gainean ipurdia erakusten zuen, komunean eserita kaka zeriola. Mangera batekin ura bota ziguten gu beldurtzeko asmoz, baina ez zuten lortu. Oso ongi pasatu genuen eta argazkiak ere atera genituen. Gaua Donezteben pasatu ondoren, oso pozik itzuli ginen Mendarora.

## *Txistea*

Gizon batek galdetzen dio medikua den lagun bati:

— Zergaitik galdetzen diozu bezero bakoitzari zer jaten duen?

Garrantzitsua al da hori jatea?

— Bai horixe! Fakturan zenbat kobratu kalkulatzen dut horrela.



## Jakitunen eskutik

### Jan bai, baina nola?

**N**utrizioan adituak diren sendagileak bat datoz gaztetxoek eskolara joan aurretik eta bertatik itzultzen direnean jatordu egokiak egin behar dituztela esatean. Eskolako adina dutenean eskolara joan aurretik ongi gosalduz gero beraien errendimendua hobea dela gauza jakina da. Baina, beste ikerketa baten arabera ikasle gazteen %25 inguruk ez du gosaltzen, denbora faltagatik edo ez loditzeagatik. Nutrologoen ustez, eskolara gosaldu gabe joanez gero, nekea igarri dezakete ikasleek eta goiz erdian zerbait pikatzeko gogoia senti dezakete, horrela, kaloria gehiago kontsumituz. Gosari on baten baitan esnea edo esnekiak, ogia edo zerealak eta fruta egon behar dira. Beste aukera batzuk, arraultza egosia, gazta freskoa edo grasa gutxi daukaten enbutidoak dira.

Arratsaldean, eskolatik etxera itzultzean, dieta merienda eta afari egokiekin osatu behar da. Hau da, buruz eta begiz ongi elikatu behar dira. Izan ere, desorduetan jatea eta opilak edo plater azkarrak hartzea haurrek eta nerabeek daukaten jokabide negatibo bat da. Lapikokoa ez dute gustuko izaten, gozoak eta azukredun freskagarriak, ordea, beraien jaki eta edari faboritoen artean

daude. Gainera, beste azterketa batzuen emaitzek adierazten dutenez, gero eta patata, ogi, arroz eta pasta gutxiago jaten dute, horren ordez animalietatik datozen produktuak kontsumitzen dituzte, enbutidoak batez ere. Janari azkarrak aurrea hartu die etxeko plater tradizionalei, eta ia egunero gauza bera jatea ohizkoa bihurtu da.

Honen ondorioz, kolesterol mailak gora egin du haurretan. Deckelbaum doktoarearen arabera, "60. hamarkadan kolesterol maila egokia zegoen haurren artean, orain 172 mg/dl izatera pasatu da, komeni dena baino neurri altuagora, hain zuzen ere". Haurtzaroan eta gaztaroan dieta egokia egitea beharrezkoa da aurrera begira pisuarekin arazoak ez izateko. Adituen esanetan, zazpi urtez azpiko haurren % 40ak eta nerabeen % 70ak helduak direnean pisu arazoak izango ditu.

Gregorio Varela irakaslearen ustez, gakoa gaztetxoei nahi dutena jaten erakustea da, baina gehiegikeriarik egin gabe eta urdaiazpikoa, toma, oliba olio, laranja, arroza eta patata jan behar dituztela ahaztu gabe.

**Iturria: El semanal aldizkaria**

## Zer iritzi daukazu .....*aberastasuna*.....ri buruz?



*Aberastamna urrea edukitzea da.*

ILLART URAIN, 6 urte



*Nire ustez ez litzateke ez aberats ez txirorik egon behar, legearen aurrean denok berdinak baikara.*

NEREA ZUBIAURRE, 12 urte.



*Nire ustez aberastamnak ez du portamunik ematen.*

JANIS VALLEJO, 10 urte



**HARITZ  
LARRAÑAGA**  
6 urte

## Galde debalde

1. Zer egingo zenuke ikustezina bazina?
2. Gehien gustatzen zaizun litxarrerria.
3. Nora joango zinateke oporretara gustura?
4. Non gordeko zenuke altxor bat?
5. Zer broma egingo zenioke lagun bati?
6. Zer marratzuko zenuke orri zuri batean?
7. Lagun on bati zer oparituko zenioke?
8. Telebistan gustukoen duzun saioa?

- 1- Txakur bat eukiko nuke nora jun esateko.
- 2- Pipak.
- 3- Plaiara.
- 4- Desierto baten.
- 5- Jotzeko plantak in baina ez jo.
- 6- Etxe bat, mendi batzuketan eta eguzkixa.
- 7- Hegazkin bat.
- 8- Marrazkiak.



**ITSASNE  
IDOETA**  
11 urte

- 1- Jendiari adarra jo.
- 2- Gominolak.
- 3- Hawaiiara.
- 4- Nere kuartoko ohe azpitan.
- 5- Ez nioke bromarik ingo.
- 6- Nere lagun baten aurpegixa.
- 7- Nobixua.
- 8- Medico de familia.

## Zer da... *paradisua*?

**MIRARI OLAZABAL 9 URTE**



Nik pastel asko dagoen tokiari esaten diot paradisua.

**AITOR ZABALETZA 8 URTE**



Paradisuan zuhaitzak, basapiztiak, lakua eta palmerak daude.

**ENEKO SALEGI 8 URTE**



Paradisua zelai bat da eta han belarra eta loreak daude.

**LOREA RIAÑO 8 URTE**



Zuhaitz asko dau den eta bero asko egiten duen lekua da.

**AINHOA MUGERZA 8 URTE**



Jangoikoak Adan eta Eba eraman zituen lekua.

**MIKEL FREIRE 11 URTE**



Paradisua erreka bat da eta Mendaron dago. Gu udan joaten gara bainatzera.

# Denborapasak: ezetz asmatu!

## 1. Zer da hau?



## 2. Zer galdetu diegu?

?



**MIRARI EGAÑA**  
7urte

"Mendaron kirolak antolatuko nituzke eta baita udaleku irekiak ere. Txiki-Park moduko bat eta piszinak ere jarriko nituzke."

**JON VAZ**  
10 urte

"Piszinak ipiniko nituzke. Inpuestok gutxitu egingo nituzke eta herri-tarrei ez nieke dirurik eskatuko."



## 3. Abere hauetatik zein bizi



## 4. Asmakizunak

— Bat da luzeena bi txikiagoak bat txiki eta mehea bestea lodiagoa.

— Ez du hankarik eta badabil, bidea egiten du gelditu barik. Ez da idia eta adarrak dauzka.

— Sasira joan eta urratu ez, uretara joan eta busti ez.



*Isabel Aizpurua, irakaslea da eta duela 2 urte sartu zen Parrokiako Misio Taldean. Pobrean alde lanean aritzen den talde honek urtean zehar kanpaina ugari antolatzen ditu. Aste honetan Kultur Etxean ikusgai izan den "Sar zaitez mentura zoragarri honetan" erakusketaren ardura ere Misio Taldeak izan du. Isabelek, taldeko lanari buruz zenbait argibide eman dizkigu.*

# ISABEL AIZPURUA

## "Gizarte kontsumistaren inguruko erreflexioa egitea izan da erakusketaren helburua"

**- Nola sartu zinen Misio Taldean?**

- Kristaua sentitzen naiz eta baneukan Parrokiako talderen baten parte hartze-ko gogo. Bilera batera gonbidatu ninduten eta bertan elizako talde guztietako partaideak zeuden. Niretzat egokiena Misio Taldea zela iruditu zitzaidan eta orain dela bi urte hasi nintzen taldeko bileretara joaten.

**- Zer egiten duzue Misio Taldean?**

- Urtean zehar hainbat kanpaina egiten ditugu: Domund, gosearen aurkakoa... Kanpainetan jasotako dirua misiolarietara ematen diegu. Batez ere, herrira diru eske etortzen direnei. Badira laguntza eske idazten diguten misiolariak eta hauei ere ematen diegu dirua. Orain dela bi urte amabitxien kan-

painarekin hasi ginen eta gaur egun 43 haur besoetako dauzkagu. Bestalde, Gabonetan, komertzio justuko denda montatzen dugu eta hor ateratako dirua ere laguntza emateko erabiltzen dugu. Jasotako dirua behar-tsuei iristen zaie eta zertarako erabiltzen duten beti jakiten dugu. Eskerrak eman ez eskutitzak jasotzen ditugu eta egindako lanen argazkiak ere bidaltzen dizkigute.

**- Izan al zara misioetan?**

- Gustura joango nintzateke baina ez naiz sekula bertan izan. Hala ere, hemen gauza asko egin daitezkeela uste dut. Bai haiei eta baita herriko jendeari laguntzeko. Amets bat izango litzateke egunen batean horrelako lurralde batera joan eta laguntzea, baina mo-

mentuz hemen zeregina badagoela pentsatzen dut.

**- Zein egoeratan bizi dirahan?**

- Aste honetan ikusgai izan den erakusketan Rwandako, Angolako eta Ekuadorreko egoerak eman ditugu ezagutzera. Misiolari euskaldunak herrialde haue- tan daudelako batez ere. Rwandako egoera oso txarra da gerraren eraginez, Angolan ere beste hainbeste eta Ekuadorren oso aberatsak direnak badaude, baina gehienak miserian bizi dira.

**- Jendea sentsibilizatuta al dago gai honekin?**

- Kanpainak egiten direnean jendeak ekonomikoki laguntzen du, beraz, sentsibilizatuta dago.

**- Erakusketa ere antolatu berri duzue.**

- Elizbarrutiaren 50. urteurrena zela-eta, erakusketa hau antolatzeko aukera proposatu ziguten eta guk beste herri batzuetako esperientzia ikusita Elgoibarrera ekartzea erabaki genuen. Taldean jende gutxi gaude eta egun osoz umeekin lan egiteko Katekisten eta beste zenbaiten laguntza izan dugu.

**- Zein izan da erakusketaren helburua?**

- Umeei ezezik heldueri ere hiru lurralde horietako errealitatea azaldu nahi izan diegu, beraiek sentsibilizatzeko eta hemengo egoera hangoarekin kontrastatzeko. Batez ere, umeei zuzendu nahi izan diegu, beraiek baitira etorkizuna. Gizarte kontsumistaren inguruko erreflexioa eta kritika egin ahal izateko laguntza eman diegu erakusketa didaktiko baten bidez.

### BESTEAK ESANA

"Taldean duela gutxi sartu zen baina lan egiteko gogo handiarekin. Aparteko emakumea da".

ELENA ALBERDI, Misio Taldeko laguna



# KANPOTIK PC GUZTIAK BERDINAK DIRA



## BARRUTIK, ZUK ERABAKI.

FABRIKATZAILE HANDI  
BATEN KALITATEAREN  
GARANTIAREKIN, BAINA  
BEZERO BAKOITZARI  
EGOKITUTAKO  
ESKAINTZAREN BIDEZ.  
**SALMENTA AURREKO eta**  
OSTEKO ZERBITZUA:  
GARANTIA OSOA ZURE  
**PCa** ESKURATU  
AURRETIK ETA ONDOREN.

*Orain uztaibera arte...*

### ICN EKIPOA:

- ❑ **Karkasa:** ASUS MR5
- ❑ **Oinarrizko P.:** P5A\* (Audioa barne)
- ❑ **CPUa:** K6-2-400
- ❑ **RAM M.:** 64 Mb SDRAM - PC100
- ❑ **DISKO GOGORRA:** 4,3Gb IDE DMA
- ❑ **BIDEO T.:** AGP-VI326c, 4Mb
- ❑ **CD-ROMa** 40 BARRUKOA 40X ASUS ULTRA DMA
- ❑ **FLOPPYa:** 1,44Mb
- ❑ **TEKLATUA:** KEYTRONIC PS/2
- ❑ **ARRATOIA:** MINI DIN
- ❑ **BOZGORAILUAK:** 50W PHILIPS
- ❑ PHILIPS 105S MONITOREA

- ❖ 56K Faxmodem-a 3Com U.S. Robotics
- ❖ Internet-era konexioa urtebetez
- ❖ LEXMARK JET PRINTER 5700 inprimagailua  
(8 ppm z/b, 4 ppm k., 1.200x1.200 ppp)

**182.000 pta.**

**211.120 pta.**  
(BEZarekin)



**Softlan**

desarrollos informáticos  
analisis & programazioa

Hardware - Software - Internet

Antonio Arrillaga, 1 · 20870 Elgoibar · Tel. 943 74 81 05 · Faxa: 943 74 82 28  
Web orria: <http://www.softlan.com>. E-posta: [desarrollo@softlan.com](mailto:desarrollo@softlan.com)



**A**

ste honetako argazkia, izenik eman nahi ez duen herritar batek laga digu. Eibarko Ojangu-renek atera zuen argazki historikoa 1947ko irailaren 14an. Orduan jokatu zuten Eibarko Ipurua zelaiaren inaugurazioko lehen partidu ofiziala. Emaizta elgoibartarren aldekoa izan zen 0-2 irabazi baitzion etxeko taldeari, Eibarri. Golak,

Fernando Ayestak eta Eulogio Etxeberriak sartu zituzten, azken honek penaltiz. Partidua jokatu zutenak agertzen dira argazkian. Goiko ilaran: **Jesus Egaña, Eulogio Etxeberria, Jose Maria Igartua, Fernando Ayesta, Juan Cruz Gabilondo, Jesus Barrene-txea (†) eta Antonio Azpiazu (†)**.

Beheko ilaran: Botikinarekin, laguntzaileak, **Benito Saez (†) eta Miguel Zabalo (†)**, **Gabriel Gabilondo (†)**, **Antonio Unzueta, Pedro Gabilondo** eta **Fernando Arberas**. Elgoibartar asko izan zen bertan eta irabaztea gozoa izan zenez, oso pozik itzuli ziren etxera.

- Kontabilitate  
- Lan  
- Fiskal

**URKIDI**  
**AHOLKULARITZA**  
**ITT ERCOS ASEGURROAK**

**YOX**  
Kalamua, 12  
ELGOIBAR  
Tel-Faxa:  
943 74 18 91

**KAROBI**  
**TABERNA**

San Frantzisko, 37  
Tel. 943 74 06 37

**ELGOIBAR**

**ELENA**  
**ileapaindegia**

**Depilazio Elektrikoa**

San Frantzisko, 49-1 Tel: 943 74 11 89

**Mandiola Egurrak S.L.**  
Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA  
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83



**"Inor ez da futboletik biziko eta lagun giroan hartzen dou"**



**Itziar Gurrutxaga**

- **Adina: 22 urte**
- **Ligako ekiporik onena?** Athletic.
- **Gustuko jokalaria bat?** Rivaldo.
- **Zaletasunik?** Edozein kirol praktikatzea eta lagunekin ibiltzea gustatzen jata.
- **Zer ari zara ikasten?** Enpresaritza ikasketak.

**-Senior mailako Euskadiko selekzioarekin jokatu duzu, zer moduz?** Oso gustura. Iaz ere izan nitzan eta oso esperientzia politxa da. Espainiako Txapelketako lehen fasia Burgosen jokatu gendun. Hurrengo faserako sailkatu ginan eta Aste Santuan Almerian (Andaluzian) jokatu genitxun azken faseko partidua. Finalerdietako partidua galdu gendun, baina Madrilekuen kontrako partidua irabazi eta hirugarren postua lortu gendun.

**-Beste komunitateetako taldeekin alderatuz zer maila du Euskal selekzioak?** Euskadin beti egon dia oso jokalaria onak. Selekzioan ere beti ibili gera onenekin, baina azken aldian ez dou suerterik izan eta beti gerau gera ohorezko postuetatik hurbil.

**-Zein postutan jokatzen duzu?** Zelaian erdialdian jokatzen dot. Batzuetan erdilarixen eta aurrelarixen tartian ere jokatzen doten arren, "media punta" esaten dana naiz.

**-Zer moduz Ligan?** Liga erregionaleko igoerako fasia jokatzen ari gera. Momentuz bigarrenak goiaz eta hiru partidu falta jakuz jokatzeke. Dana dala, mailaz igotzia lortuz gero ere, ez dakigu hurrengo urtian Liga Nazionalian jokatuko dogun edo ez. Aurtengo taldea oso gaztia da, 14 eta 16 urte bitxarteko jokalaria asko daoz eta Liga Nazio-

nalian esperientzia eukitzia oso inportantia da. Biajiek eta arbitruiek ere diru asko kostatzen dabenez, klubaren esku dao azken erabakixa.

**-Azken urteetako Ligetan ez duzue zorte handirik izan, ezta?** Batere ez. 3 urtez jarraixan bigarren geratu gera. Aurten ere bide berdinetik guaz eta behingoz lehenenguak izateko gogua dakagu.

**-Belar artifiziala ala naturala?** Belar artifizialera ohitxu naiz eta nahixao dot. Baloia belozidade haundixuan ibiltzen da eta jokua ere bizkorra da. Kanpua jokatzen ditxugun partiduetan belarra egoera onian egonez gero, gustura jokatzen dot. Zoritxarrez holako zelai gutxi daoz.

**-Noiz arte segitzea pentsatzen duzu?** Laster erretiruan pentsatzen hasi biharko naiz. Asteburuetan ezin izaten dot beste planik ein eta horrek asko erretzen dau. Baina 6 urte futbolian ibili eta lagatziak ere pena haundixa ematen dia. Nesken artian 25 urte baino lenuao futbola lagatzia nahiko normala da, ikasketak diazela, nobixua... beti dao zoezer.

**-Futboletik ezin bizi izateak bala du eraginik?** Bai. Denbora pasa moduan hartzen dou futbola. Inor ez da profesionala izatera iritsiko eta lagungirua da nagusi. Profesionala izateko aukerarik egonez gero, mutil batzuekin gertatzen dan moduan, serixuegi hartuko zaben batzuek futbola.

**KIROL ALBISTEAK**

**● Ana Etxaniz eta Maialen Mora Gipuzkoako txapeldun 1.000 m-ko lasterketan eta jabalina jaurtiketan**

Gipuzkoako Atletismo txapelketa jokatu zen pasa den zapatuan (maiatzak 8) Donostiako Anoeta estadioan. Ana Etxaniz korrikalariak 1.000 metrotako proban urrezko domina irabazi zuen, infantil mailan. Egin zuen denbora 3 minutu eta 19 segundukoa izan zen. Bestalde, Maialen Mora Ulaziak jabalina jaurtiketako Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen. Egindako jaurtiketa 23,30 metrotakoa izan zen. Marka bi-

kaina jabalina jaurtiketan parte hartzen zuen lehenengo aldia zela kontutan hartuz. Bestalde, disko jaurtiketan ere oso ongi aritu zen Maialen eta zilarrezko domina irabazi zuen. Jaurtiketarik onenean diskoa 27,48 metrotara bota zuen, bere marka metro eta erdian hobetuz. Garaipen hau eker, ekainaren Sean Gazteizen jokatuko den Euskadiko Txapelketan, Gipuzkoako ordezkariak izango dira bi kirolari hauek.


**● Elgoibarko Hiria txirridulari proba domekan korrituko da**

Elgoibarko Lagun Taldea txirridulari eskolak antolaturik, 19. Elgoibarko Hiria sari nagusia korrituko da datorren domekan, (hilak 16). Jubenil mailako txirridularientzako proba izango da. Partehartzaileak Foruen Plazatik irtengo dira goizeko 10:00etan eta helmuga Santa Klara kalean egongo da. Guztira 90 kilometro egin beharko dituzte.

## Elgoibarko Mendi Itzulia domekan izango da

Aurten ere ibilbide luzea edo motza egiteko aukera izango da

**M**orkaiko Mendizale Elkar-teak Elgoibarko mendi itzulia antolatu du urtero bezala. Aurten, maiatzaren 16an, domeka, izango da Elgoibarko mendietan zehar egiten den itzulia. Iaz bezala, bi ibilbide desberdin egiteko aukera izango dute mendizaleek: ohizko ibilbidea bata eta orain dela 60 urte egiten zen itzuli luzeagoa bestea. Ibilbide luzeena aukeratzan dutenek, taldean



*Itzuliaren amaieran, parte hartzaile guztiek otordua izango dute*

joan beharko dute eta ibilbide luzea aukeratu dutela antolatzaileei jakinaraztea eskatzen zaie. Irteera goizeko 6:30etan izango da Morkaikoren egoitzatik. Izen ematea, elkartera aurrez deituz (943 74 02 97) edo irteera unean bertan egin daiteke, eta 1.000 pta ordaindu beharko dira. Itzulia amaitu ondoren, Morkaiko Mendizale Elkartekoek partehartzaile guztiei otordua eskainiko diete.

## Egoitz Mora eta Zuhaitz Azpiazu judokak Toulouseko nazioarteko txapelketan garaile

**P**asa den zapatuan, hilak 8, Ibai Klubeko Egoitz Morak eta Zuhaitz Azpiazuk, Toulouseko nazioarteko taldekako txapelketa irabazi zuten, 18 urtez azpiko jubenil mailan. Talde guztiak frantziarrak ziren elgoibartarrek eta usurbiltarrek osatutakoa izan ezik. Txapelketa Liga moduan jokatu zen, hau da, talde guztiak elkarren kontra, eta elgoibartarren taldea nahiko erraz nagusitu zitzaizen aurkariei. Aipagarria da Egoitz Moraren partaidetza, borrokaldi denak, puntuazio altuenarekin eta oso azkar irabazi baitzitu.



*Zuhaitz Azpiazu (ezkerrekoa) eta Egoitz Mora (eskuinekoa) sari banaketan ateratako argazkian*

### AGENDA (Maiatzak 15, 20. jardunaldia)

#### ARETO FUTBOLA (Mintxetan)

##### ■ Benjamin mutilak ■

10:00 Herri Eskola A - Ikastola A

10:30 Pilar A - Pilar B

11:00 Ikastola B - Mendaro A

11:30 Herri Eskola B - Ikastola C

##### ■ Benjamin neskak ■

12:00 Ikastola B - Pilar B

12:30 Ikastola C - Pilar A

#### SASKIBALOIA (Ikastolan)

##### ■ Infantil neskak ■

10:30 Ikastola E - Ikastola C

11:15 Ikastola B - Pilar A

12:00 Insti - Pilar B

##### ■ Infantil mutilak ■

12:45 Pilar A - Insti

##### ■ Alebin mutilak ■

9:45 Pilar A - Ikastola A

10:30 Mendaro A - Ikastola B

11:15 Pilar B - Mendaro B

##### ■ Alebin neskak ■

12:00 Pilar A - Ikastola A

12:45 Ikastola B - Pilar B

### EMAITZAK

#### Futbitoia

Kunta Kinte 1 - P.S.K. 6

Lojantzi 12 - Aizkorak Mendibil 1

#### Areto Futbola

Ataun Generali 4 - Zur Ta Lur 2 (1. maila)

La Navarra 1 - Zur Ta Lur 5 (Auton.)

#### Futbola

Amurrio 3 - Haundi 1

Urki 2 - Elgoibar 10 (1. jub.)

Beti-Gazte 2 - Elgoibar 3 (Kad.)

Lagun-Onak 0 - Elgoibar 2 (Oho. inf.)

Ostadar 7 - Elgoibar 0 (Neskak)

Pedrusko 3 - Urnieta 1 (2. erreg.)

Elgoibar 0 - Urko 7 (L.N. jub.)

Elgoibar 3 - Iintza 3 (1. erreg.)

#### Es kubaloi

Urola Super 13 - IMH Elg. 34 (Senior Mut.)

#### Es ku Pilota

##### LAGUNAK PILOTA TXAPELKETA

Unai Bilbao 18 - L. Zubiaurre 8 (Ben. aur.)

J. Salazar 18 - A. Lizarralde 6 (Benj.)

I. Ugalde 18 - A. Gumez 12 (Aleb.)

H. Arribillaga 18 - A. Arrese 2 (Ben. aur.)

D. Mendibil 18 - I. Zubiaurre 5 (Benj. aur.)

U. Bilbao 18 - J. Agirrebeña 16 (Benj. aur.)

P. Larrea 18 - K. Arrizabalaga 16 (Benj.)

G. Zulaika 18 - J. Salaberria 5 (Benj.)

I. Oiarzabal 18 - J. Rodriguez 17 (Benj.)

M. Elustondo 18 - O. Txurruka 13 (Aleb.)

J. Larrañaga 18 - A. Urain 1 (Inf.)

##### HERRI ARTEKO TXAPELKETA

Azpeitia 2 - Elgoibar 1

#### Idarraga Kafeak 2. saria

HAUNDIko jokalaririk erregularrena 98/99

JOKALARIA ..... PUNTUAK

1- Aitor Trebiño ..... 32

2- Ibon Muguruza ..... 32

3- Medina ..... 30

4- Gurrutxaga ..... 30

5- Díaz ..... 29

6- Eneko ..... 28

7- G. Lazarobaster ..... 27

8- Txasio ..... 26

9- Iker Leonardo ..... 22

10- Caro ..... 20

11- Beitia ..... 18

12- Igor ..... 16

13- Elkoro ..... 15

14- Loren ..... 13

15- G. Leonardo ..... 10

16- Portu ..... 1

17- Joseba Igartua ..... 1

### AGENDA

#### Es ku Pilota, Ikastolako frontoian

##### Ostirala 14

Herri Arteko Txapelketa

22: 00 Elgoibar - Azpeitia

#### Futbola, Mintxetan

Larunbata, 15

16:00 Elgoibar - Kostkas (Oho. inf.)

17:00 Elgoibar - Arrasate (1. jub.)

Igandea, 16

17:00 Haundi - Conquense

## Taaaango!

**A**rgentinak, tangoen erreinuak, *Gardelen* ahotsaren menpe muxikatzen den zaporea mantentzen du, Piazzolaren arima gordetzen duen Buenos Aires honetan. Bertan finkatuta dago **LOS FABULOSOS CADILLACS** izeneko taldea.

1997. urtean argitaratu zuten *"Fabulosos calavera"*. Irabiagailu batean estilo desberdinak sartu eta emango baligute bezala, Rock gogorretik hasi, funkya, reggaea, ska edo salsa bezalako estiloetatik igaro eta tangoan erori arte funtzionatzen dute. Gaur egun, elementu berberak erabiltzen dituzten talde asko (edo gehiegi) dagoenez, zerk egiten du talde hau berezia izatea? Batik bat, disko osoan estilo desberdinetako abestiak aurkitu ordez, abesti bakoitzean estilo desberdinak fusionatzea lortzen dute arrisku handiko konposizioak eratuz. Horrela, Brujería bezalako talde bat "Cool Jazz" a egiten ariko balira bezala agertzen zaizkigu abesti batean. Teknika bikaina erakutsiz, erritmo aldaketa eta instrumentazio zainduak erabiliz, imajinarioari mugarik ezarri gabe izugarritzko collage-a lortu du talde interesgarri honek. Argi ibili, eta belarriak ongi ireki, aldaketa bortitziak desoreka dakarte-eta.

Iban Urizar



## Aste Literarioa antolatu dute Urruzuno Literatur Taldeko gazteek

"Literatura eta bidaiak" izenburupean hiru emanaldi antolatu dituzte

**B**igarren urtez jarraian Literatur Astea antolatu du Elgoibarko Izarrako Urruzuno Literatur Taldeak. Maiatzaren 17tik 26ra bitartean izango da eta egun hauetan hainbat ekitaldi izango dira: Bi hitzaldi, diapositibaz lagunduta eta Ongarri Zine Klubarekin batera, zine emanaldia.

Joan den urteko ildo berari jarraituz aurten ere Literatur astea izango da Elgoibarren, baina bigarren honek ezaugarri berezi bat izango du, emanaldi guztiak gai beraren ingurukoak dira. Literatura eta bidaiak da Urruzuno Taldekoek aukeratu duten gaia eta hiru saio antolatu dituzte.

Lehendabizikoa maiatzaren 17an, astelehena izango da arratsaldeko 19:30ean Kultur Etxeko hitzaldi gelan. "Turkiatik Myanmarera bi emakume bizikletaz" izenburupean, Esther Mugerzak eta Amaia Elosegik Asiako lurretan igarotako abenturak izango dituzte

hizketagai, diapositibaz lagunduta egingo duten hitzaldian. Maiatzaren 20an, osteguna, Ongarri Zine Klubekoekin batera Agnieszka Hollanden "Vidas al limite" pelikularen emanaldia antolatu dute. Ikuskizuna Herriko Antzokian izango da gaueko 22:15ean. Leonardo di Caprio eta David Tawlis dira filmeko protagonistak eta bi poetaren harteko harremana kontatzen du. Hirugarrenik, maiatzaren 26an, asteazkena, Gaztetxean, arratsaldeko 19:30ean Jon Arretxe idazleak diapositiba emanaldia eta hitzaldia eskainiko ditu "Bidaiatzea, bizitzeko modua" izenburupean. Idazle basauriarrarenak dira, besteak beste, "Tubabu" eta "Tuparen seme-alabak" bidaia liburuak.

Urruzuno Literatur Taldeko gazteek literatura eta bidaiak gustuko dituzten guztiak gonbidatu nahi dituzte Literatur Astearen barruan antolatu dituzten ekitaldietan parte hartzera.

## Antonio Irisarriren argazki erakusketa inaguratuko dute hilaren 21ean

**O**ngarri fotografia kolektiboak antolatuta, Antonio Irisarri argazkilariaren "Hurbilketak" izeneko argazki bilduma inaguratuko dute ostiralean, hilak 21, arratsaldeko 20:00etan. Antonio Irisarri Estellan jaio zen duela 70 urte eta gaur egun Eibarren bizi da, baina 20 urtez Elgoibarren bizi izandakoa da. "Hurbilketak" bere azken lana da. Bertan, kolorezko abstrakzio jokuak eginez lortutako argazkiak daude. Argazki guztien ezaugarri



Antonio Irisarri argazkilaria.


nagusia oso hurbiletik aterata daudela da, hortik erakusketa-aren izenburua. Aipagarria da, hainbat sari irabazteaz gain, iaz Euskal Herriko Argazkilari Elkartearen Federazioak omenaldia eskaini ziola Antoniori. Gainera, Ongarriko ohorezko bazkide bakarra da, kolektibo honen bigarren etapa aurrera ateratzeko egin zuen lanarengatik, besteak beste. Aukera paregabea, beraz, Irisarriren argazkiak hurbiletik gozatzeko. Erakusketa ekainaren 5era arte egongo da zabalik.

## Kaioa eta katua antzezlanak Herriko Antzokian hilaren 16an

**D**ebabarreneko 8. Antzerki Erakusketarekin jarraituz, *Txamuskina* Sestako talde profesioanalarik "Kaioa eta katua" antzezlan eskainiko du datorren domekan (hilak 16) Herriko Antzokian. Nagore Navarrok zuzendutako lana da eta bereziki haurrentzako eta gazteentzako pentsaturik dago. Antzezlanak, xamurtasunez, adiskidetasunez eta humorez beteriko Antxonon istorioa kontatzen digu. Itsas portu

batean bizi den kaleko katua da Antxon. Kateme dotore batetaz maiteminduta dago, baina ez da ezer esatera ausartzen. Egun batean, Katemearengana hurbiltzen saiatuko da, baina nahigabe beste istorio batzuetan sartuko da. Kaio baten arraultza zaindu beharko du eta gero txitoari hegan egiten erakutsi. Hala ere, ez zaio bere lagunaren laguntzarik faltako. Emanaldia arratsaldeko 16:30ean hasiko da.

# “IKUSKIZUNAREN BURUA eta GORPUTZA NAIZ”



*Josu Mugica dantzari eta koreografo elgoibartarrak “Gogoaren Hegalak” koreografia estreinatuko du maiatzaren 21ean Herriko Antzokian. Dantza-teatroa bezala definitu duen ikuskizun hau bere kabuz antolatu eta produzitu ondoren, atzerrira eramateko asmoa du. Azken lan honi buruz eta dantzarekin zerikusia duen beste hainbat gauzen inguruan hitz egin dugu Josurekin.*

**-Nola hasi zinen dantzan?** 1974. urtean Haritz Dantzari taldean hasi nintzen dantza egiten. Lagungiroak eta dantzak segituan erakarri ninduten. Magisteritza bukatutakoan Bartzelonako Instituto de Teatrora joan nintzen. Ana Moreno irakaslea ezagutu nuen eta dantza klasikoaren munduan sartzeraz animatu ninduen. Dantza serioago hartzea erabaki nuen eta hurrengo pausoa Belgikako *Mutra* eskolara joatea izan zen. Bi urteko dantza klasikoko ikasketak egin nituen. Oso urte gogorak izan ziren, baina oso emankorrak; dantzaten, interpretatzen, inprobisatzen eta kantatzen

ikasi nuen-eta.

**-Zer kontatu nahi duzu “Gogoaren Hegalak” koreografiarekin?** Pertsona batek bere bizitzako momentu batean di-tuen ametsak eta gogoak erakutsi nahi izan ditut. Klabe batzuk daude, eta bakoitzak bere ondorioak atera ditzala amaieran. Telebista asko ikusteak sor ditzakeen arrisku-kuetaz hausnarketa bat ere bada.

**-Aldi berean koreografoa eta dantzaria izatea oztopo bat izan al da?** Zailtasun bat gehiago izan da. Ikuskizunaren burua eta gorputza naiz. Dantzan ari naizenean gorputzaren mugimenduetan pentsatu behar dut. Baina, aldi berean, ikuskizuna kanpotik ikusiko banu bezala zuzendu behar dut. Prestaketetan laguntzaile bat saiatzun da gure akatsak zuzentzen.

**-Nola definituko zenuke zure dantza?** Dantza-teatroa dela esatea atsegin dut. Jarraipen eta orden zehatz bat duen istorio bat kontatzen dut, eta ez dago esanahirik gabeko mugimendurik.

**-Nolako izan behar du dantzari baten heziketak?** Teknika menperatzea oso

garrantzitsua da, gorputza menperatzen laguntzen dizu. Teknika onak, gorputzaren mugimenduen bidez dauzkazun ideak publikoari adierazteko balio du.

**-Laguntzarik izan al duzu koreografia hau sortzeko?** Nire poltsikotik irten da diru guztia. Orain dirulaguntzak eskatzea pentsatzen dut. Aurrez eskatzen badituzun denbora asko itxaron behar da eta arriskatzearabaki nuen. Dena dela, bestelako laguntza asko izan ditut. Laguntzarik handiena entsaioetarako Herriko Antzokia hilabete eta erdian utzi didatela izan da. Luxu izugarria izan da.

**-Zertan laguntzen dizu dantzak eguneroko bizitzarako?** Edadean aurrera egin ahala, gorputza ahazteko joera daukagu. Jendeak, egunero dantzan eginez gero, osasuntsuago sentituko litzateke. Tentsioak kentzeko ere paregabea da. Piska bat mozkortzen garenean, adibidez, denok hasten gara dantzan. Izan ere, dantzak zerbait pozgarria edo berezia du, askatasun sentsazio bat ematen du eta hori oso garrantzitsua da gure buruak ezagutzeko.

**POL-POL**  
T A B E R N A  
San Bartolome, 19 - Tel: 943 74 08 74

  
**karkizano**  
San Frantzisko, 14 - Tel. 943 74 05 49

  
**Arrieta**  
San Bartolome, 18  
Tel. 943 74 08 49

  
**OIERKI IGOGAILUAK**  
Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua  
943 20 35 15 • ABERIAK 943 20 31 25  
Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR

  
**Jesus M<sup>e</sup> Gabilondo Urain**  
ERREFORMAK • ETXEBARRUKO LANAK  
LAN TOPOGRAFIKOAK  
Delineatzailea - Topografoa - 1397. kolegiatua  
Ubitarte, 4- 5. esk. - Tel: 943 74 45 99 - Faxe: 943 74 18 91

## INTERESEKO TELEFONOAK

### OSASUNA

Anbulategia:  
 Larrialdiak . . . 943 461111  
 Txanda hartzeko . 943 743354  
 Planning-a . . . . 943 742950  
 Alkoholiko Anonimoak . 943740385  
 D.Y.A (anbulantzia) . 943 464622  
 Gurutze Gorria . . 943 743864  
 Mendaroko Ospitalea . 943 032800  
 Odol Emaileak . . 943 743936

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak . . 943 740442  
 PESA (Eibar) . . . 902 10 12 10  
 Taxi geltokia . . . 943 740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua . . 943 744366  
 Udal Kirol Patronatua . 943 744415  
 Kultura Zerbitzua . . 943 742158  
 Mendaroko Udala . . 943 756100  
 Ongizate zerbitzua . . 943741008  
 Udaletxea . . . . . 943 741050  
 Udaltzaingoa . . . 943 741394

### BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra . . . 943 741626  
 Kiroldegia . . . . . 943 744415  
 Kontsumo Bulegoa . . 943 743088  
 Liburutegia . . . . . 943 743525  
 Musika Eskola . . . 943 742145  
 Mintxeta . . . . . 943 744315  
 Parrokia . . . . . 943 740842  
 Postetxea . . . . . 943 741547  
 Gaztetxea . . . . . 943 743572

### ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza . . 943 740296  
 Zaharren Biltokia . . 943 740526

### IKASTETXEAK

Haur Eskola . . . 943 74 21 41  
 HHI (EPA) . . . . . 943 74 08 80  
 Herri Eskola . . . 943 74 08 79  
 I.M.H. . . . . . 943 74 41 32  
 Herri Institutua  
 Arreiturre . . . 943 74 02 67  
 Ezenarro (Meka) . . 943 74 44 80  
 Ikastola . . . . . 943 74 44 41  
 Pilar Ikastetxea . . . 943 74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN . . . . . 943 74 41 12  
 El Diario Vasco . . . 943 74 40 73  
 El Correo Español . . 943 74 10 82  
 Egin . . . . . 943 10 84 21  
 Zazpiki Irratia . . 943 74 34 74

## 14 ostirala

**22:15 ZINE KLUBA**  
 "Pleasantville"

**23:00 MUSIKA, POESIA eta iPUIN IKUSKIZUNA**  
 "El Corsal Desastre"  
 Antolatzailea:  
 Gazte Asanblada  
 Gaztetxean

## 15 larunbata

**16:30 ANTZERKIA**  
 Antzezlanak:  
 "Amona txistelarria"  
 Antolatzailea:  
 Gazteen Gurutze Gorria  
 Kultur Etxean

**19:30-22:15 ZINEA**  
 "Mensaje en una botella"

**22:00 KONTZERTUA**  
 "Legen Beltza" eta  
 "Kafha"  
 Gaztetxean

## 16 igandea

**6:30 ELGOIBARKO MENDI ITZULIA**  
 Antolatzailea: Morkaiko  
 Mendizale Elkarteak.  
 Irteera:  
 Morkaikoren egoitzatik

**10:00 "XIX. ELGOIBARKO HIRIA" TXIRRINDULARI LASTEKETA**

Antolatzailea:  
 Elgoibarko Lagun Taldea

**16:00 DEBABARRENEKO ANIZERKIERAKUSKETA**

"Kaioa eta katua"  
 Taldea: Txamuskina  
 Herriko Antzokian

**19:30-22:15 ZINEA**  
 "Mensaje en una botella"

## 17 astelehena

**19:00 EHEN BATZARRA**  
 Gaia: Udal Hauteskundeak  
 Kimetz Elkarteak

**19:30 HITZALDIA eta DIAPOSITIBA EMANALDIA**  
 Gaia: Turkiatik Myanmarera, bizikletaz  
 Hizlariak: Esther Mugerza eta Amaia Elozegi  
 Antolatzailea:  
 Urruzuno Literatur Taldea  
 Kultur Etxean

**22:15 ZINEA**  
 "Mensaje en una botella"

## 18 asteartea

**18:30 HITZALDIA**  
 Arreta Krisialdian  
 Hizlaria:  
 Rafa Benito psikiatra  
 Antolatzailea: AGUIFES  
 Kultur Etxean

## 20 osteguna

**22:15 LITERATURA ASTEA eta ZINE KLUBA**  
 "Vidas al limite"  
 Antolatzaileak: Ongarri  
 Zine Kluba eta Urruzuno  
 Literatur taldea.

## 21 ostirala

**20:00 "HURBILKETAK" ARGAZKI ERAKUSKETA**  
 Egilea: Antonio Irisarri  
 Antolatzailea: Ongarri  
 fotografia kolektiboa  
 Kultur Etxean

**22:30 "GOGOAREN HEGALAK" DANTZA SAIOA**  
 Josu Mugicaren  
 koreografia  
 Herriko Antzokian  
 Sarrerak: Pitxintxun eta  
 Gorostizan (500 pta.)

# ZINEA



**Zuzendaria: Luis Mandoki.**  
**Antzezleak: Kevin Costner,**  
**Robin Wright Penn, Paul Newman.**

### Mensaje en una Botella

Theresa Osborne dibortzio mingarri baten ondoren oso atsekabeturik eta triste bizi da. Penak ahazteko oporretara joango da. Ondartza bakarti batean barruan amodiozko eskutitza duen botila bat aurkituko du. Eskutitzaren zintzotasunak barruraino hunkituko du eta egilearen bila joatea erabakiko du.



## DIA DAS LETRAS GALEGAS

### OSTIRALA, 14

**19:00** Jaiei hasiera txafliu jaurtiketarekin. Galiziako jaki tipikoen dastaketa.

**22:30** Berbena *D'Camara* taldearekin. Queimada dastaketa.

### LARUNBATA, 15

**10:30** Txafliu jaurtiketa.

**12:00** *Dragons Vermellos Gaita Taldearen* kalejira Urasandin eta Herri Eskolan. Galiziako jaki tipikoen dastaketa.

**13:30** *Cocktelera* taldearen saioa.

**14:30** Haurren jolasak. Sariak banatuko dira.

**18:00** Galiziako jaki tipikoen dastaketa Herri Eskolan.

**19:30** *Dragons Vermellos Gaita Taldearen* kalejira herrian zehar. Emanaldia Plaza Handian.

**20:00** *Cocktelera* orkestaren emanaldia.

**23:00** Berbena *Cocktelera* taldearekin.

### IGANDEA, 16

**11:30** Udaltxistulari Taldearen eta *Dragons Vermellos Gaita Taldearen* diana.

**12:15** Haritz Dantzari Taldearen ongi-etorria Gaita Taldeari.

**12:30** Meza, Elgoibarren hildako galiziar guztien oroimenez.

**13:15** Herri Eskolan, Haritz Dantzari Taldearen, Udaltxistulari Bandaren eta *Dragons Vermellos Gaita Taldearen* ikuskizuna.

**14:30** Bazkaria lokal sozialean herriko agintariek.

**18:00** *Dragons Vermellos* taldearen agurra

**19:00** Jaiei amaiera.

## ● "Arreta Krisialdietan" hitzaldia emango du Jose Luis Gil sikiatruk

Jose Luis Gil mediku sikiatruk "Arreta Krisialdietan" hitzaldia eskainiko du asteartean, maiatzak 18, Kultur Etxean. AGUIFES, Gipuzkoako Senide eta Eri sikikoen Elkarteak Gipuzkoako hainbat herritan egiten ari den sentsibilizazio kanpainaren barruan kokatzen da ekintza hau. Hitzaldia arratsaldeko 18:30ean hasiko da.

## ● Reiki ikastaroa

*Surya* belardendak *Reiki* ikastaroa antolatu du maiatzaren 22 eta 23rako. *Reiki*-a, eskuak erabiliz gorputzeko hainbat ataletako minak sendatzeko teknika erraz eta praktikoa da. Hasi berrientzako maila izango du ikastaroak. Izen-ematea eta informazio gehiago, *Surya* belardendan (943 74 25 34)

## ● "El Corsal Desastre" taldearen ikuskizuna, gaur ostirala, hilak 14

Gaur, hilak 14, iluntzeko 23:00etan "El Corsal Desastre" taldearen ikuskizuna izango da ikusgai Gaztetxean. Gazte Asanbladak antolatutako emanaldiak, musika, poesia eta ipuinak nahastuko ditu zuzeneko nahiz aurrez grabatutako soinuak erabiliz. "El Corsal Desastre" Carlos Desastreren taldea da. Carlos, Granadako berez, Azkoitian bizi da gaur egun eta garai batean "712. Amor" taldeko kidea izan zen. Azkoitian bizi denetik Akauzazte taldearen sorreran parte hartu du, bai eta beraien hastapenetako kontzertuetan ere. Bere lanak betidanik, esperimentazioarekin eduki izan du zerikusia, eta azkenaldian baita literaturarekin ere. Aukera paregabea, beraz, ezohizko ikuskizunaz gozatzeko. Sarrera doan izango da.



## ● Akuarela ikastaroa

*Egur* arte tailerrak 30 orduko akuarela ikastaroa antolatu du. Maiatzaren 24an hasi eta ekainaren 11ra arte luzatuko da. Ordutegia arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara bitartekoa da. Ikastaroan parte hartu nahi duenak *Egur*rek Ubitarte Plazan duen egoitzan eman dezake izena aurrez aipatutako ordutegian.

## ● Gurutze Gorriko aisialdi taldearen ikuskizuna

Gazteen Gurutze Gorriko aisialdi taldeko haurrek "Amona txistelaria" antzezlan eskainiko dute larunbatean, hilak 15. 11 eta 12 urtetako haurrek prestatutako antzerkia izango da eta antzezpena egiteaz gain, begiraleekin batera play-back eta dantza saioak izango dira. Mikel Lizarralderi omenaldia ere egingo zaio aisialdi taldeko zuzendaritza kargua utzi duelako. Emanaldia arratsaldeko 16:30ean hasiko da Kultur Etxean.

## T X A N D A K

### FARMAZIAK

	Eguez	Gauetz
15	Bidasolo	Bidasolo
16	Bidasolo	Bidasolo
17	Ettxeberria	Ettxeberria (Santa Ana kalean)
18	Anduaga	Anduaga
19	Yudego	Yudego
20	Zabaleta	Zabaleta
21	Ettxeberria	Ettxeberria (Errosario kalean)

**ESCALA:** Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38  
**ANDUAGA:** Mendarozabal, 1 Garagarza. Tel: 943 75 61 42  
**ZABALETA:** Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

### OKINDEGIA

16 igandea Idarraga

## ONGARRI zine kluba



Zuzendaria: Agnieszka Holland.  
 Antzezleak: Leonardo Di Caprio, David Tewlis, Dominique Blanc.

## "Vidas al limite"

1871. urtean Verlain poeta frantziarra harriturik geratuko da 17 urteko baserritar batek idatzitako poemak irakurtzean. Gazte baserritarrak Rimbaud du izena eta edertasun eta kalitatez beteriko poemak idazten ditu. Verlain Parisen bizi da eta Rimbaud bere etxera gonbidatuko du. Maitemindu egingo dira, baina bi urte beranduago bien arteko erlazioa oso modu bierrentoan amaituko da.

## Etxebizitzak

- ◆ Bungalowa alokatzen da Santa Polan (Alicante). Abuztua eta iraila. ☎ 943 74 12 13 (Gauzez)
- ◆ 23 urteko mutil batek gela bat nahi du pisu konpartitu batean. Maiatzaren 16tik uztailearen 31ra bitartean. ☎ 943 74 80 66 (18:00rak arte)
- ◆ Pisua alokatuko genuke irailetik aurrera. Altzariekin. 4 neska. ☎ 943 76 23 80 (Naiara)
- ◆ Pisua alokatuko nuke 8 bat hila-beterako. Ahal bada altzariekin. ☎ 943 74 09 44
- ◆ Pisua behar dut alokatzeko. Prisa dauka. Altzariekin. Soldata finkoa. ☎ 943 74 08 09
- ◆ Pisua daukat alokatzeko. Akademia edo bulegoa jartzeko aproposa. S. Frantzisko kalean, 2. pisuan. Prezio onean. ☎ 943 74 03 71 (Ana M.)
- ◆ Pisua salgai Errosario kalean. ☎ 943 74 17 95
- ◆ Pisu txikia edo buhardila alokatuko nuke. ☎ 943 74 23 63

## Salerosketak

### ◆ SALDU ◆

- ◆ Novica "Jet" karabina salgai, urtebete baino gutxiago dauka. Cal. 5,5. Vel. inicial 240 m/s. Egoera onean ☎ 943 74 01 46.
- ◆ Rover 520 SI autoa salgai. Bi urte ditu. Ekonomikoa. ☎ 610 65 34 52 (20:00etatik aurrera)
- ◆ Seat Toledo GLX 1.8i SS-AL salgai. ☎ 943 74 24 83
- ◆ Game Gear kontsola saltzen da prezio onean. ☎ 943 74 34 06 (18:00etatik aurrera)
- ◆ Autoa salgai. Super 5, SS-X. Prezio ona. ☎ 943 74 01 34 (20:00etatik aurrera)
- ◆ Bigarren eskuko ordenagailuak salgai. ☎ 943 76 28 68/76 12 52

## Garajeak

- ◆ Arregitorren marradun garajea alokatzen da. ☎ 943 74 32 48
- ◆ Marradun garajea alokatzen dut San Roke, 5 - 7an, Karakate elkar-tearen azpian. ☎ 943 74 33 39
- ◆ Garaje marraduna alokatzen dut Aterpe tabernaren azpian. ☎ 943 74 30 33
- ◆ Olasope industrialdean garaje itxia salgai. ☎ 943 74 31 56
- ◆ Garaje itxia salgai Pista Beltzean. ☎ 943 74 03 81

## Lana

### ◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ Neska gaztea behar da aste bukaeratan ogitartekoak egiteko. ☎ 600 20 87 10
- ◆ Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko, edo umeak zaintzeko, orduka. ☎ 943 58 40 31
- ◆ Kamareroa behar da astegunetarako. ☎ 619 86 30 16 (Oraiko)
- ◆ Esperientziadun kamareroa eta kamarera behar dira 20-30 urte bitartekoak. Elgoibarko tabernarako. ☎ 630 61 76 11
- ◆ Kamarera behar da jatetxe batean lan egiteko. 6 hilabeterako. ☎ 943 19 24 12 (20:30etik 22:00era. Kontxi)
- ◆ Esperientziadun kamareroa behar da. ☎ 943 74 36 02 (10:00-13:00/15:00-19:00)

### ◆ ESKAERA ◆

- ◆ Klinika laguntzaile euskalduna eskaintzen da pertsona gaixoak eta edadetuak zaintzeko. Esperientzia eta informeak ditut. ☎ 943 74 04 86
- ◆ Erizaintzan diplomatutako neska euskalduna eskaintzen da pertsona gaixoak eta edadetuak zaintzeko. Etxean edo ospitalean. Egunez nahiz gauzez. ☎ 943 74 27 78
- ◆ Gaixoak edo edadetuak zaintzeko esperientziadun emakume euskalduna eskaintzen da. ☎ 943 74 01 57 (Gauzez)
- ◆ Neska eskaintzen da etxeko lanak edo garbiketarako egiteko. ☎ 610 65 34 52 (20:00etatik aurrera)
- ◆ Arratsalde txostenak ordenagailuz pasatzeko eta bulegoko gestioak egiteko prest nago. ☎ 943 74 39 67 (Nerea)

## Agurrak

- ◆ Zorionak **Laurentino** eta **M. Pilarri** 33. ezkontza urteurrenaren. Victor Joseren, Maiteren eta iloba Jose Miguelen partez.
- ◆ Zorionak **lagun handiari** 17an urtebetetzea duzulako. Zure lagun partez. Ondo pasatzea espero dugu.
- ◆ Zorionak **Itsaso Perezi**, maiatzaren 10ean urteak bete zituelako.
- ◆ Zorionak **Joshua Lizundiari**, maiatzaren 15ean urteak beteko zituelako. Bere lehengusina Jone-ren partez.
- ◆ Zorionak **Amaia de Castro**ri, hilaren 25ean urteak beteko zituelako. Ikastolako 4. mailako eta bereziki Iratxeren, Leireren eta Nerearen partez. Ondo pasa eguna.

◆ Zorionak San Bartolome ikastolako **5. maila osoari**, Ikas Pilota txapelketarako sailkatu direlako.

◆ Zorionak **Lara Uraini** maiatzak 15ean urteak beteko zituelako. Zer uste zenuen ahaztuak ginela? Zorionak baita ere, **Eider Perezi** maiatzaren 13an urteak bete zituelako Alazneren eta Ainhoaren partez.

◆ Zorionak **Luciari** eta **Ainhoari** beraien lagun misteriotsuen partez.

◆ Zorionak **Eider Perezi** maiatzaren 13an 11 urte bete zituelako. 5. mailako, eta bereziki Estibalizen partez.

◆ Zorionak **Ion Sanchezi**, hilaren 18an 12 urte beteko zituelako. Ikastolako 6. mailako eta bereziki "Cielito"ren partez, muxutxo kariñoso bat. Ea Gipuzkoako fasea irabazten dugun.

◆ Zorionak **Oihane Sanchezi** hilaren 12an 12 urte bete zituelako. Ikastolako 6. mailako eta bereziki "Corazon"en partez.

◆ Zorionak **Miren Lorea!** asteartean hilak 11 zure urtebetetzea izan zelako. Ainhoaren partez.



◆ Zorionak **Oseli**, hilaren 16an urteak beteko zituelako. Gurasoen eta Nerearen partez.



◆ Zorionak **Elixabeti**, maiatzaren 8an 10 urte bete zituelako, gurasoen, osaba-izeben, aiton-amonen eta bereziki

Sararen partez.



◆ **Jon Odriozolari**, hilaren 9an 9 urte bete zituelako, zorionak Asierren, gurasoen eta aiton-amonen partez.



◆ Zorionak **Egoitzi** larunbat, urtebete egingo duelako. Gurasoen, aiton amonen, Ramsesen eta Ainhoaren eta bereziki Mirenen partez.



◆ Zorionak **Gorka Bengoetxeari** bihar, hilak 15, 15 urte beteko dituelako. Mainerren, Leireren eta Nerearen partez.



◆ Zorionak **Ramsesi**, hilaren 19an 28 urte beteko zituelako. Ainhoaren eta bereziki bere alaba Mirenen partez.



◆ Halako batean iritsi zaizue eguna. Prestatu al duzue valsa? Sekula San Isidro Egunean egin den erromeriarik handiena egingo du. Eutsi gogor adarretatik zezenari eta mila zorion!



◆ Zorionak **Monika eta Alberto!** Maiatzaren 15ean Elgoibarko Parrokiak bere jantzi eta bitxirik onenak jarriko ditu bie ingi-eterria egiteko. Oso egun politxa pasa eta orain arte bezala zoriontsuak izan gauza guztien gainetik, merezi duzue-eta. Bihotz-bihotzez, zuen lagun partez.



◆ Zorionak **Larari**, hilaren 15ean 11 urte beteko dituelako. Familia osoaren eta bereziki Aneren partez. Zorionak baita ere bere lehengusinarenekin eta Estibalizen partez.



◆ Zorionak eta muxu asko, astehenean 3 urte beteko dituen **Iker Manceburi**. Ondo pasa. Fernan eta Edurne.



◆ Zorionak **Ainarari**, hilaren 15ean 20 urte beteko dituelako. Orain arte bezain alaia izaten jarrai dezazula. Familia osoaren partez.



◆ Zorionak **Asierri**, gaur 6 urte bete dituelako. Musu handi bat etxeko guztien eta bereziki anaia Aitorren partez.



◆ Zorionak **Hodei Lopezi**, maiatzaren 18an 7 urte beteko dituelako. Gurasoen eta aiton-amonen partez.

# ASTE LITERARIOA

## LITERATURA eta BIDAIAK

maiatzaren 17tik 26ra

**MAIATZAK 17, astelehena**

### HITZALDIA-DIAPOSITIBA EMANALDIA

Gaia: Turkiatik Myanmar-era,  
bi emakume bizikletaz

Hizlariak:

Esther Mugerza eta Amaia Elozegi  
Kultur Etxeko hitzaldi gelan  
Arratsaldeko 19:30ean



**MAIATZAK 20, osteguna**

### ONGARRI ZINE KLUBA

"Vidas al límite" pelikula

Zuzendaria: Agnieszka Holland

Antzezleak:

Leonardo di Caprio eta David Tewlis  
Herriko Antzokian  
Gaueko 22:15ean



**MAIATZAK 26, asteazkena**

### HITZALDIA-DIAPOSITIBA EMANALDIA

Gaia: Bidaiatzea, bizitzeko modua

Hizlaria: Jon Arretxe

Gaztetxean

Arratsaldeko 19:30ean



**ANTOLATZAILEA:**

URRUZUNO  
LITERATUR TALDEA



**LAGUNTZAILEAK:**



ELGOIBARKO UDALA



ONGARRI ZINE KLUBA



ALDUNDIA



# 4x4 trakzioan aukera



ALDIBI AUTOAK, S.



PATROL GR.



ALDIKAR AUTOAK, S. L.



MONTERO SPORT



ALMOVIL, S. L.



SANTAMO AWD

## ALDIBI AUTOAK, S.A.

Olaso kalea, 23 · 20870 ELGOIBAR · Tel: 943 74 20 37 - Faxe: 943 74 35 24  
Zigarrola kalea, 1 · 20500 ARRASATE · Tel: 943 71 20 02 - Faxe: 943 79 65 65